

Iñaki Zubeldia

IDAZLEA

## Le Havre, film zoragarria

F

ilm hau ikusi eta guztiz txundituta atera nintzen: izugarria da, ederra, bikaina, mundiala, sakona. Tristeia, hitsa eta iluna ematen du eta, barru-barruan, beren pertsonaien jarretan eta jokaeretan, oihaneko ostaje eder eta argitsua nabari da, solidaritatez, adiskidetasunez eta gizatasunez betea. Istorioak izugarritzko indarra du eta pertsonaiak ezin hobeto aukeratuta daude. Auzo baztertu bateko kaleetatik eta etxe txiroenetatik hartu ditu horiek, txoko ilun eta zikinenak aukeratu ditu, baina denak argitasunez eta berotasunez bete ditu. Errealismo zikinenaren sailkapenean sar daiteke kontakizuna, baina aldi berean poesiaz eta sentimenduz betea sentitzen du ikusleak. Mutiko beltz emigrante bat eta Marcel Marx idazle buhame eta frakasatua, orain kaleko zapata garbitzaile dena, dira kontakizuneko protagonistak, baina auzo horretan bizi diren beste pertsonaiek ere indar eta esku-hartze handia dute: Marcelen emazteak berak, emakume tabernariak, gizonezko fruta saltzaileak, polizia inspektoreak... Pertsonaia honen anbiguotasuna oso ondo lortua dago, denbora guztian zapata garbitzailearen atzetik dabilela baitirudi hau delituren batean harrapatzeko asmotan, baina gauzak



DANI BLANCO

ez dira guztiz horrela... Izugarria da filmak mantentzen duen tentsioa hasieratik bukararaino.

Aki Kaurismäki itxaropenari atea irekita utzi nahi izan dio, pertsonaia baztertu hauek ia beti galtzaile suertatzen direlako bizitzan. Hemen, aldiz, auzoko pertsonaia ilun eta anker itxurako hauek bihotz baten eta sentimendu jator batzuen jabe direla erakutsiko dute, legeari eta ustezko zuzenbidezko estatuari aurre eginez eta atzapar horietatik aske ateratzeko itxaropena egon daitekeela aldarrikatuz. Harrigarria da gaizkileen giroko filma dirudien honek nola aska ditzakeen ikusleen bihotzetan sentimendurik finenak eta nobleenak, eta nola hori ez dagoen derrigorrez kurtsileriarekin eta bigunkeriarekin lotuta. Film hau ez baita ez kurtsilerian eta ez bigunkeria erortzen, eta azken uneraino mantentzen baitu suspentsea, tentsioa eta dena hankaz gora joango dela sinestarazten dizun sentsazioa.

Dударик gabe, aurtengo Oskarra proposatzen dut film erdionentzat. Hain gauza gutxirekin hainbesteko indar narratiborik lortzen ez dut sekula ikusi eta ez nukeen imajinatu ere egingo posible zenik. Gora Aki Kaurismäki! ■



Harrigarria da gaizkileen giroko filma dirudien honek nola aska ditzakeen ikusleen bihotzetan sentimendurik finenak, eta nola hori ez dagoen derrigorrez kurtsileriarekin lotuta

TXANDAN

Joxerra Garzia



Gustuko bidelagun izan dut beti musika: une etsien gozagarri eta une gozoen eutsigarri ezinbesteko. Gustura entzuten dut inorena ere, baina lagunekin kantuz aritzea da niretzat atseginarena goren.

Lanbideak gazteei begira jartzen nau, eta aitortu behar dut harriritua naukala askok musikarekin duten harremanak. Hor ikusten ditut, goizean goizetik, belarriak entzungailuz hornituta, musika entzun eta entzun, edonon daudela eta edozertan ari direla ere.

### Isil-isilik

Teknologiak aukera hori ematen die, eta eurek muturreraino baliatzen dute. Egia esan, besteok ere beste horrenbeste egin izan dugu beti, garaian garaiko teknologiek (telebista, autoa, eskuko telefonoa...): trasteak geure premietara egokitu beharrean, gu haien erritmora errenditu, geuretzat kaltean.

Hori aitortuta, hala ere, jakin nahi nuke zer sentitzen duten entzungailuak erantzi beste erremediorik ez duten apurretan, konturatzen ote diren, musikaren hilobi ere izan litekeen arren, musikaren sehaska dela batez ere isiltasuna. ■

